



Hezkuntza, Zientzia  
eta Kulturarako Nazio  
Batuen Erakundea

Organización  
de las Naciones Unidas  
para la Educación,  
la Ciencia y la Cultura



BILBAO

PREMIO



# Giza Eskubideen Kultura

SUSTATZEKO  
UNESCO/**BILBAO** SARIA

PREMIO UNESCO/**BILBAO**  
PARA LA PROMOCIÓN DE UNA

# Cultura de Derechos Humanos





# Giza Eskubideen Kultura

Sustatzeko UNESCO/BILBAO Saria

Premio UNESCO/BILBAO Para la Promoción de una

# Cultura de Derechos Humanos

**Contact / Contact:**

Division of Human Rights, Philosophy and Democracy /  
Division des droits de l'homme, de la philosophie et de la démocratie  
Social and Human Sciences Sector / Secteur des sciences sociales et humaines  
Secretariat of the UNESCO/Bilbao Prize for the Promotion of a Culture of Human Rights  
Secrétariat du Prix UNESCO/Bilbao pour la promotion d'une culture des droits de l'homme

Ms / Madame Angela Melo, Secretary of the Prize / Secrétaire du Prix  
Ms / Madame Irina Zoubenko-Laplante, Assistant Programme Specialist / Spécialiste adjoint du programme

UNESCO House / Maison de l'UNESCO  
1 rue Miollis  
75732 Paris - France

Tel. : + 33 1 45 68 38 17

Fax : + 33 1 45 68 57 26

E-mail : a.melo@unesco.org

cc. : i.zoubenko-laplante@unesco.org

Internet : [www. http://www.unesco.org/new/en/social-and-human-sciences/events/prizes-and-celebrations/unesco-prizes/unesco-bilbao-prize/](http://www.unesco.org/new/en/social-and-human-sciences/events/prizes-and-celebrations/unesco-prizes/unesco-bilbao-prize/)



©UNESCO, December 2010

Photographs : Ángel Ruiz de Azua / City Hall of Bilbao / Corporación Parque por la Paz Villa Grimaldi / France terre d'asile / International Federation Musique Espérance / MONUC / Toshimi Ishii / UNESCO

Graphic Design / Design Graphique: Anna Mortreux

Printed by UNESCO Etxea – UNESCO Centre Basque Country /

Imprimé par UNESCO Etxea – Centre UNESCO du Pays Basque

Isozaki Atea – Plaza de la Convivencia, Paseo de Uribitarte, 12 – local 2, 48001 Bilbao, Spain / Espagne

Tel. +34 944276432; e-mail: n.uribe@unescoetxea.org; [www.unescoetxea.org](http://www.unescoetxea.org)

SHS/2010/PI/H/3

## Aurkibidea

---

Bilboko alkate I. Azkunaren mezua - - - - -	5
UNESCOren Zuzendari Nagusi I. Bokovaren mezua - - - - -	6
Bilbo, kulturaren, bakearen eta giza eskubideen aldeko hiria - - - - -	8

### UNESCO/BILBAO SARIA 2010

Prensa komunikatua - - - - -	14
2010eko irabazlea - - - - -	16
2010eko ohorezko aipamenak - - - - -	20
Nazioarteko epaimahaia - - - - -	26

### UNESCO/BILBAO SARIA 2008

2008ko irabazlea - - - - -	34
2008ko ohorezko aipamenak - - - - -	34
Giza Eskubideen Kultura Sustatzeko UNESCO/Bilbao Saria sortu dute - - -	36
Helburuak - - - - -	37
Nork jaso dezake saria? - - - - -	38
Nork aurkezten ditu hautagaiak? - - -	39
Nork erabakitzen ditu sari-irabazleak? -	40
Zenbatekoa da saria eta zenbatetik behin ematen da? - - - - -	40
Zer-nolako baldintzak bete behar dituzte hautagaiak? - - - - -	40

## Índice

---

Mensaje de I. Azkuna, Alcalde de Bilbao - - - - -	5
Mensaje de I. Bokova, Directora General de la UNESCO - - - - -	7
Bilbao, una ciudad por la Cultura, la Paz y los Derechos Humanos - - - - -	9

### PREMIO UNESCO/BILBAO 2010

Comunicado de Prensa - - - - -	15
La galardonada 2010 - - - - -	16
Las Menciones de Honor 2010 - - - - -	20
El Jurado Internacional - - - - -	26

### PREMIO UNESCO/BILBAO 2008

El galardonado 2008 - - - - -	35
Las Menciones de Honor 2008 - - - - -	35
Creación del Premio UNESCO/Bilbao para la Promoción de una Cultura de los Derechos Humanos - - - - -	36
Objetivos - - - - -	37
¿A quién se destina el Premio? - - - - -	38
¿Quién puede presentar las candidaturas? -	39
¿Quién nombra a las personas galardonadas? - - - - -	40
¿A qué cantidad asciende el Premio y con qué periodicidad se otorga? - - - - -	40
¿Cuáles son las condiciones o requisitos de los candidatos? - - - - -	40



*Bilboko Alkatea*  
*El Alcalde de Bilbao*

UNESCO/BILBAO sarian parte hartzea Bilboko Udalaren konpromiso sendoa izan da mundu hobearen alde, gizadi gizatiarragoaren eta solidarioagoaren alde lan egiteko, Parisko Unescora eta Bilboko Unesco-Etxera hurbiltzeak gizon-emakumeekiko ditugun sentimendurik solidarioenak askatzeko balio izan digu, eta Stephane Hesselen mailako pertsonekin egin ahal izan dugu topo. Gizakien eskubideen zerbitzurako ezin hautsizko morala eta sendotasun intelektuala duen jendea, bizitza osoa emana elkartasun-politikaren alde.

Pozik gaude UNESCO/BILBAO sariari egin diogun ekarpen txikiarekin, gizadiaren ikuspegi zabalagoa eta anitzagoa edukitzeko aukera eman digulako.

Eskerrik asko UNESCO.

Contribuir al premio UNESCO/BILBAO para la promoción de una cultura de los derechos humanos ha supuesto para el Ayuntamiento de Bilbao un compromiso firme para trabajar por un mundo mejor, por una humanidad más humana y solidaria. Nuestro acercamiento a Unesco Paris y en Bilbao a Unesco-Etxea ha servido para dar rienda suelta a nuestros sentimientos más solidarios para con los hombres y mujeres, y nos ha permitido encontrarnos con personajes de la talla de Stephane Hessel. Gentes de una moral inquebrantable y de una solidez intelectual al servicio de los derechos humanos, vidas dedicadas por entero a una política de solidaridad.

Estamos satisfechos con nuestra pequeña contribución al premio UNESCO/BILBAO, porque nos ha dado la posibilidad de tener una visión más amplia y más plural de la humanidad.

Gracias UNESCO.

**I. Azkuna**

Bilboko alkatea  
Alcalde de Bilbao



Giza Eskubideen Kultura Sustatzeko UNESCO/Bilbao Sariak hezkuntzaren nahiz ikerketaren bidez giza eskubideen aldeko ekarpen nabarmena egin duten erakundeak eta norbanakoak saritzen ditu.

UNESCO/Bilbao Saria 2008an sortu zen Bilboko hiriaren babes eskuzabalari esker. Saria Giza Eskubideen Hezkuntzarako UNESCO Sariaren luzapena da, 1978. urtean Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 30. urteurrena zela eta sortu zena. Sari horren bitartez, hogeita hamar urtez, giza eskubideen hezkuntza eta horren inguruko sentsibilizazioa sustatu dituzte, alor horretan egindako ahaleginak omen-  
duz. Saria jaso dutenen artean, honako hauek daude, besteak beste: Václav Havel (Txekiar Errepublika), Vitit Muntarbhorn (Thailandia), Giza Eskubideen Mexikoko Akademia (Mexiko), Giza Eskubideen Arabiar Institutua (Tunisia) eta Pretoriako Unibertsitateko Giza Eskubideen Zentroa (Hegoafrika).

Bilbo bezalako hiriak UNESCOrekin hartutako konpromisoa seinale nabarmena da, ondo neurtu beharreko garrantzia daukana. Beste ezeren gaineratik eta oso aspalditik, gizon-emakumeek hirian ikasi behar izaten dute elkarrekin bizitzeko. XXI. mendearen hasiera honetan, munduko biztanleriaren erdia baino gehiago hirietan bizi da; hori dela eta, hiria espazio estrategiko bihurtu da guztiontzat, giza duintasuna defendatzeko. Egungo mundua globalizatuta, urbanizatuta eta gero eta heterogeneoagoak diren gizartez osatuta dago, eta testuinguru horretan, giza eskubideak errespetatzea gero eta premia handiagoa daukan betebeharra da.

Lehen UNESCO/Bilbao Saria 2008an eman zen, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren hirurogeigarren urteurrenean, eta Stéphane Hessel frantziarrari eman zitzaion. Stéphane Hessel diplomazialaria Frantziako erresistentziako pertsona garrantzitsua izan zen, eta giza eskubideen defendatzaile sutsua; halaber, inplikazio garrantzitsua izan zuen testu historiko haren idazketan eta onarpenean.

Asko pozten nau aurten UNESCO/Bilbao Saria (2010) Asma Jahangir andreari emateak. Asma Jahangir legegari entzutetsua, Pakistango Gorte Goreneko abokatua eta hango Abokatuen Elkargoko lehendakaria da, eta bere energia osoa eta uste sendoa giza eskubideak babesteko eman ditu; batez ere, erlijio-gutxiengoen, emakumeen eta haurren giza eskubideak. Bere herrialdean nahiz nazioartean egindako lan handia eskertzeko eman zaio saria, bai eta erakutsi duen nekazintasunagatik ere, sarri bere bizia arriskuan jarriz.

Nazio Batuen erlijio- edo sinesmen-askatasunerako kontalari berezia den aldetik, Asma Jahangirek kulturarteko elkarriketa sustatzen jakin du, eta horrela, tolerantzia, elkar ulertze eta bakerako lankidetzeta hobea lortzen lagundu du. Hezkuntza kulturen eta erlijioen bizikidetzarako gakoa dela defendatzen du, intolerantzia eta diskriminazioa eragiten duten arrazoi sakonak modu iraunkorrean ezabatzeko modurik onena. Esanguratsua da UNESCO/Bilbao Saria 2010. urtean eman izana; izan ere, Nazio Batuek Kulturen Hurbilketarako Nazioarteko Urte izendatu dute, UNESCOren babespean.

UNESCO/Bilbao Saria Asma Jahangir andreari emateko zeremonia abenduaren 10ean izango da, Giza Eskubideen Nazioarteko Egunean; aurten, 2010ean, diskriminazioarekin amaitzeko lan egiten duten giza eskubideen defendatzaileak omenduko dira egun horretan. Berriz eman nahi nizkieke eskerrak Bilboko hiriari eta bertako alkate Iñaki Azkuna jaunari, UNESCOren jarduerari emandako balio handiko babesagatik. UNESCO/Bilbao Saria da bi erakundeok giza eskubideak elkarriketaren eta elkar ulertzearen bitartez bakearen mesedetan biziartzeko daukagun konpromisoaren lekuko onena.

**Irina Bokova**  
**UNESCOren Zuzendari Nagusia**

El Premio UNESCO-Bilbao para la Promoción de una Cultura de los Derechos Humanos recompensa a organizaciones y particulares que hayan aportado una contribución muy importante a la causa de los derechos humanos por medio de la educación y la investigación.

Creado en 2008 gracias al generoso apoyo de la ciudad de Bilbao, el Premio UNESCO-Bilbao entronca con el Premio UNESCO de Educación para los Derechos Humanos, que se instituyó en 1978 con motivo del trigésimo aniversario de la Declaración Universal de Derechos Humanos. Durante 30 años gracias a esta recompensa se pudo llevar a cabo una tarea de sensibilización y promover la educación sobre los derechos humanos, rindiendo homenaje a los esfuerzos realizados en esta esfera. Entre los galardonados se cuentan Václav Havel (República Checa), Viti Muntarbhorn (Tailandia), la Academia Mexicana de Derechos Humanos (México), el Instituto árabe pro derechos humanos (Túnez) y el Centro de Derechos Humanos, sito en la Universidad de Pretoria (Sudáfrica).

El que una ciudad como Bilbao cierre filas junto a la UNESCO es un signo revelador cuya importancia debe calibrarse en su justa medida. La ciudad es por excelencia y desde hace mucho tiempo el lugar donde hombres y mujeres deben aprender a convivir. En este comienzo del siglo XXI en que más de la mitad de la población mundial es urbana, esta verdad patente cobra más vigor que nunca y la ciudad se vuelve un espacio estratégico para la defensa de la dignidad humana. En el mundo actual, globalizado, urbanizado y compuesto de sociedades diversas más y más heterogéneas, el respeto de los derechos humanos es un deber cada vez más imperioso.

La primera edición del Premio UNESCO-Bilbao tuvo lugar en 2008 con ocasión del sexagésimo aniversario de la Declaración Universal de Derechos Humanos, cuando fue atribuido a Stéphane Hessel, diplomático francés, figura de la Resistencia francesa, ardiente defensor de los derechos humanos que tuvo un papel preponderante en la redacción y aprobación de ese texto histórico.

Me complace sobremanera que este año el Premio UNESCO-Bilbao se conceda a la señora Asma Jahangir, distinguida jurista, abogada de la Corte Suprema del Pakistán y Presidenta de su Colegio de Abogados. La señora Asma Jahangir ha dedicado su gran energía y su fuerza de convicción a proteger los derechos humanos, en particular los de las minorías religiosas, las mujeres y los niños. Con el Premio se recompensa la inmensa labor que ha llevado a cabo no sólo en el plano local sino también en el internacional y la tenacidad de que ha dado muestras, a menudo arriesgando su vida.

Como Relatora Especial de las Naciones Unidas sobre la libertad de religión o de creencias, Asma Jahangir ha sabido fomentar el diálogo intercultural entre los países y contribuir así a que sean mayores la tolerancia, el entendimiento mutuo y la cooperación para la paz. Propugna la educación como clave para una mejor convivencia entre las culturas y las religiones, el mejor medio para eliminar de manera duradera las causas profundas de la intolerancia y la discriminación.

Es significativo que el Premio UNESCO-Bilbao se le conceda en 2010, Año Internacional de Acercamiento de las Culturas proclamado por las Naciones Unidas, que se observa bajo la égida de la UNESCO.

La ceremonia de entrega del Premio UNESCO-Bilbao a la señora Asma Jahangir tendrá lugar el 10 de diciembre, Día de los Derechos Humanos, dedicado en 2010 a los defensores de los derechos humanos que actúan para poner fin a la discriminación. Deseo agradecer nuevamente a la ciudad de Bilbao y a su Alcalde, señor Iñaki Azkuna, el valioso apoyo que prestan a las actividades de la UNESCO. El Premio UNESCO-Bilbao es el mejor testimonio de nuestro compromiso común de mantener vivos los derechos humanos, mediante el diálogo y el entendimiento mutuo, al servicio de la paz.

**Irina Bokova**  
**Directora General de la UNESCO**

# Bilbo, kulturaren, bakearen eta giza eskubideen aldeko hiria



© UNESCO Extea

## Geografia eta historia apur bat

Bilbo Bizkaiko lurralde historikoaren hiriburua da, eta Euskadiko (Espainia) hiririk handiena. 353.000 biztanle ditu, edo 900.000, haren metropoli-area kontuan hartzen badugu, Ibaizabal ibaiaren itsasadarra, alegia. *Bilbo Handi* hori itsasadarraren bokaleraino heltzen da, Bizkaiko golkoraino, han itsasoratzen baita ibaia, Bizkaiko Zubiaren parean. Burdinaren arkitekturako lan ikusgarri hori Gizadiaren Ondarea izendatu zuen UNESCOk 2006an.

Bilbo 1300ean sortu zen, eta oraindik ere, balio handiko hirigunea du, oso bizia eta merkataritza-bizitza handikoa. Erdi Aroko aztarnak ditu, bai eta XV. mendeko eta hurrengo mendeetako eraikin ugari ere. Sorreratik, Bilbo merkataritza-gune garrantzitsua izan zen, Shakespearek bere obretako batzuetan aipatutako Bizkaiko burdinaren gurutze-bidea, eta Bilbotik bidali zen, geroago, industria-iraultza hasiberrian Britainia Handiko ehungailuetan erabiliko zuten Gaztelako artilea ere. Hori dela-eta du Bilbok halako ingeles-kutsua, eta horren adibide da etxe askoren estiloa. Hori hauteman dezakegu, esate baterako, Sociedad Bilbaína elkartearen aperitiboa hartuz gero, Britainia Handiko klub klasikoaren molde berekoa baita. Frantziatik 120 km-ra dagoen hiri batek izan behar lukeen kutsu frantsestua ere nabari daiteke Bilbon, XIX. mendeko hiri-zabalgunean. Hirian, euskal sustraiak Mediterraneoako eta Gaztelako elementuekin uztartzen dira, bai eta nazioarteko hainbat ukiturekin ere.

Bilbo kontinenteko industrializazio-gune goiztiarrenetako bat izan zen, natura-baliabideei, kokalekuari eta, batez ere, bertako ekintzaileen berezko kemenari esker. Gaur egun, historia horren



© UNESCO Extea

ondorioak ikus ditzakegu, adibidez, Mexikon edo Kolonbian BBVA bankuko bulego batean sartzen bagara, edo Estatu Batuetan edo Britainia Handian Iberdrolari kontratatzen badiogu elektrizitate-hornikuntza, bi enpresa multinazional horiek Bilbon sortuak baitira, eta oraindik ere, Bilbon baitute egoitza soziala. Etengabeko ekintzailetza-tradizio horrek jarraipena du gaur egun ere: punta-puntako teknologia-enpresak daude; besteak beste, PANDA Security birusen kontrako programen fabrikatzaile ospetsua.

Bilbo gurutze-bidea izan da, hiri kosmopolita, itsasora eta merkataritzara irekia, berritzailea, eta sentikortasuna izan du beti kulturarekiko eta elkartasunarekiko.

## Kulturaren eta hezkuntzaren hiria

Gaur egun, mundu osoan da ezaguna Bilbo, Guggenheim Museoa dela-eta, baina artezaleak ezin du Bilboko Arte Eder Museoa bisitatu gabe utzi, ehun urtetik gorako museo hori Espainiako bigarren pinakoteka garrantzitsuenen baita, Prado museoaren atzetik. Hiria Juan Crisostomo Arriaga musika-klasizismoaren jenioaren sorlekua izan zen, orkestra sinfonikoa du, eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren egoitzetako bat da. Horrez gain, bertakoek eta bisitariek opera-denboraldi ospetsuaz gozatzeko aukera dute. Joaquin Atxukarro, hiriko piano-jotzaile nazioartekoena, Bakearen aldeko UNESCO Artista da.

Bilbon antzoki eta kontzertu- eta erakusketa-areto publiko nahiz pribatu ugari dago, bai eta kongresu-jauregi bat ere, Euskalduna Jauregia, nazioarteko sari ugari jaso dituena.

Bilbon ere, Ibaizabal ibaiaren ertzean, Deustuko Unibertsitatea dago, jesulagunena. 120 urtean, Espainia osoko intelektual, enpresaburu eta politikari asko igaro dira bertatik, bai eta Latinoamerikakoak ere, duela gutxiagotik. Hirian, Euskal Herriko Unibertsitatearen kanpus bat dago eta Ingeniarien Eskola bat, ospe handikoa hori ere.

Miguel Unamunok, hiriko seme polemika-sortzaile handienak, maitasun kritikoko harremana izan zuen beti Bilborekin, eta



## **Bilbao, una ciudad por la Cultura, la Paz y los Derechos Humanos**

### **Un poco de geografía y de historia**

Bilbao, también conocida en lengua vasca (euskera) como Bilbo, es la mayor ciudad del País Vasco (España) y es la capital del Territorio Histórico de Bizkaia. Tiene 353.000 habitantes que llegan a los 900.000 si contamos su área metropolitana, que se extiende a lo largo de la ría del Nervión (también conocida en euskera como Ibaizabal, que literalmente significa río ancho). Este Gran Bilbao llega hasta la desembocadura de la ría en el mar Cantábrico, justo a los pies del Puente de Bizkaia, maravilla de la arquitectura del hierro que en el año 2006 fue Declarada Patrimonio de la Humanidad por la UNESCO.

Bilbao fue fundada en el año 1300 y cuenta aún hoy con un animado, vivo y comercial casco histórico de notable valor, con restos medievales y numerosas construcciones de los siglos XV y siguientes. Desde su fundación, Bilbao fue un importante enclave comercial, cruce de caminos de aquel hierro vizcaino que Shakespeare glosara en alguna de sus obras y posteriormente de la lana castellana hacia los telares británicos de la naciente revolución industrial. De ahí la intensa relación de Bilbao con lo inglés que hoy podemos todavía recordar en el estilo de muchas de sus casas o tomando un aperitivo en la Sociedad Bilbaína, remedo finisecular de los clásicos clubes británicos. El aire afrancesado propio de una ciudad que se encuentra a 120 kilómetros de Francia se puede sentir también en su ensanche decimonónico. En Bilbao las raíces vascas se funden con lo mediterráneo y lo castellano, con los aderezos internacionales más diversos.

Bilbao fue uno de los núcleos de más temprana industrialización en el continente, gracias a sus recursos naturales, a su emplazamiento y, sobre todo, al ímpetu legendario de

sus emprendedores. Hoy vivimos las consecuencias de esa historia cuando entramos, en México o en Colombia, a una sucursal del BBVA o cuando contratamos, en Estados Unidos o en Gran Bretaña, el suministro energético a Iberdrola, multinacionales ambas nacidas en Bilbao y que aún conservan aquí su sede social. Esa tradición de emprendizaje continua hoy con empresas tecnológicas punteras como la conocida fabricante de programas antivirus PANDA Security.

Bilbao ha sido cruce de caminos, cosmopolita, abierta al mar y al comercio, innovadora y también sensible a la cultura y a la solidaridad.

### **Ciudad de la Cultura y de la educación**

Bilbao es hoy mundialmente conocida por su Museo Guggenheim, pero el interesado en el arte no puede dejar de visitar el ya más que centenario Museo de Bellas Artes, segunda pinacoteca de España, tras el Prado. Bilbao, cuna del genio del clasicismo musical Juan Crisóstomo de Arriaga, dispone de orquesta sinfónica propia y comparte la sede de la sinfónica de Euskadi. Sus ciudadanos y visitantes pueden disfrutar también de una reconocida temporada de ópera. Su pianista más internacional, Joaquín Achúcarro, es Artista por la Paz de la UNESCO.

Bilbao cuenta con numerosos teatros, salas de concierto y de exposiciones, públicos y privados, y un Palacio de Congresos, Euskalduna, con numerosos reconocimientos internacionales.

En Bilbao se emplaza, a orillas del Nervión, la Universidad de Deusto de los Jesuitas, por donde han pasado a lo largo de 120 años numerosos intelectuales, empresarios y políticos de toda España y, más recientemente, de toda Latinoamérica. La ciudad cuenta con una no menos prestigiosa Escuela de Ingenieros y con un Campus de la Universidad del País Vasco.

Con Bilbao siempre mantendría su característica relación de amor crítico su hijo más fructíferamente controvertido,

sarritan, askoz gehiago maite eta balioetsi izan dute kanpoan bere sorlekuan baino. XX. mende hasierako Espainiaren intelektual nagusia izan zen, eta Gerra Zibila piztu zen urte berean hil zen.

Baina artea eta kultura, batez ere, kalean daude, jendean. Bilbo hiri elebiduna da (gaztelania eta euskara), eta kaleetan, normala da hainbat eta hainbat hizkuntza entzutea; esaterako, truke-programetako unibertsitate-ikasleak ingelesez eta frantsesez mintzatzen, edo turistak italiaraz edo alemanez hitz egiten. Izan ere, ikasleen eta etorkinen immigrazioa dela-eta, 90 hizkuntzatatik gora hitz egiten dira gaur egun Bilbon, 5 kontinenteetakoak.

Bilbo hiri irekia da kultura-, sorkuntza- eta berrikuntza-industrien ekimenei dagokionez. Zinema-eskola eta dantza-eskola daude, eta kultura-zentro berritzaile bat ere bai, alondegi zaharrean. Halaber, sona handiko gastronomia du, lurreko eta itsasoko produktu onenak erabiltzen dituen, etengabe bilakaturik eta esperimentaturik.

Garai batean, Bilbo hiri industrial, goibel, heze eta iluna izan zen, baina bertako biztanleen adorea esker, miraria lortu du, eta kultura-, turismo- eta zerbitzu-hiri argitsua, adeitsua, atsegina eta paseoz betea bihurtu da.

### **Bilbo, hiri solidarioa, bakearen eta giza eskubideen alde.**

Euskal Herria, zenbaitetan, fanatismoak eragindako indarkeria politikoaren iraunkortasun krudel eta anakronikoarengatik da ezaguna. Zorionez, fanatismo hori gero eta marjinalagoa eta minoritarioagoa da, eta Bilbok, bere tradizio ilustratu eta humanistari jarraiki, tolerantziaren, elkartasunaren, giza eskubideen eta bakearen kulturaren alde egin du, horiek guztiak izan daitezten hiriaren irudiaren eta erakundearen eta hiritarren jardunbidearen identitate-ezaugarriak.

Bilboko Bakearen Aldeko Astea urtarrilaren amaieran izaten da, eta bakerako eta aniztasunerako hezkuntza sustatzea du helburu. Bilbon indarkeriarik ezaren kulturaren inguruan egiten diren ekimenak biltzeko eta haien ikuspegi orokorra plazaratzeko egiten da aste hori. Zazpi egun horietan, parte-hartze aktiboa izaten dute elkarrekin, taldeek, denbora libreko erakundeek, erretiratu eta pentsiodunen klubek, informazioaren eta artearen alorreko enpresek, komunikabideek eta, oro har, herritarrek.

Egitarauan, besteak beste, hitzaldiak, foroak, erakusketak, lantegiak, film-proiektzioak eta jarduera ludikoak daude, eta horietan guztietan funtsezkoa da hiritarren parte-hartzea.

Bilbok, gainera, *Bakearen aldeko Foroa* du, eta bertan, alderdi politikoaren, unibertsitatearen, Bilboko Elizbarrutiaren eta elkartearen ordezkariek parte hartzen dute.



Bilbok garapenerako nazioarteko lankidetzarako programa publiko garrantzitsua du, bai eta tokiko GKE-en sare zabala ere. Erakunde horiek elkartasunaren alorreko zenbait alderditan jarduten dute herrialde pobretuenetan edo egoera txarrean daudenetan. GKE horien lana, gainera, ekimen ugarietan islatzen da; hain zuzen, ia egunero daude sentsibilizazio-, elkartasun- eta hezkuntza-ekimenak hiriko kale, kultura-zentro edo ikastetxeetan, eta horietako askok Udalaren babesia izaten dute. Milaka bilbotar ibili dira mundu osoan, elkartasun-proiektu edo -ekimenetan. Noranahi joanda ere (Afrika, Amerika, Asia...), zaila izaten da bilbotarren bat ez topatzea, tokiko edo nazioarteko GKE-ekin edo erakundeekin lanean ari dela.

Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuan, Deustuko Unibertsitatean, eta Hegoa Nazioarteko Garapenari eta Lankidetzari Buruzko Ikasketak Institutuan (UPV/EHU), graduondoko ikasketak, doktoretza-programak eta goi-mailako ikerketak egiten dituzte.

Bilbok ibilbide eta identitate-ezaugarri horiekiko leial jokatu nahi izan du, eta UNESCOrekin bat egin du, Giza Eskubideen Kulturarako UNESCO/BILBAO saria sortzeko. Horretarako, gizarte zibileko tokiko erakunde bat du lagun: Euskal Herriko UNESCO Zentroa; UNESCO Etxea, alegia. Erakunde horrek Bilbon du egoitza, eta harreman ofizialak ditu UNESCOrekin. UNESCO Etxeak, Bilbon nahiz UNESCOn sona handia duen erakundeak, Bilboko Udalak eta UNESCOk aliantza bat eratu dute Giza Eskubideen Kultura nazioartean sustatzeko, eta hiria jada oso harro dago horretaz.



muchas veces más querido y apreciado fuera que dentro, don Miguel de Unamuno, intelectual por antonomasia de esa España de principios de siglo que moriría con la guerra civil.

Pero el arte y la cultura están sobre todo en la calle y en las personas. Bilbao es una ciudad bilingüe (castellano y euskera) en cuyas calles es ya normal escuchar el inglés o el francés de los universitarios en programas de intercambio, el italiano o el alemán de los turistas y las más de 90 lenguas de los 5 continentes que hoy se hablan en Bilbao gracias a la inmigración de estudiantes y trabajadores.

Bilbao es una ciudad abierta a la creatividad, la innovación y las industrias culturales. Con una escuela de cine, de baile, un centro cultural innovador sito en la vieja alhóndiga y una famosa gastronomía, basada en los mejores productos de la tierra y del mar, en permanente evolución y experimentación.

Bilbao fue un día una ciudad industrial, gris, húmeda y oscura que ha obrado, a fuerza de tesón de sus habitantes, el milagro de reinventarse como ciudad cultural, turística y de servicios, luminosa, amable, agradable y llena de paseos.

### **Bilbao, ciudad solidaria, para la Paz y los Derechos Humanos.**

En un País Vasco conocido a veces por la persistencia cruel y anacrónica de la violencia política fruto de un fanatismo, por fortuna, cada día más marginal y minoritario, Bilbao, fiel a su tradición ilustrada y humanista, ha apostado por la tolerancia, la solidaridad, los Derechos Humanos y la Cultura de Paz como señas de identidad de su imagen y de su actuar institucional y ciudadano.

La “Semana por la paz” de Bilbao se celebra a finales del mes de enero con el objetivo de fomentar la educación para la paz y la pluralidad. Esta Semana busca aglutinar y ofrecer una visión global de las numerosas iniciativas que se desarrollan en Bilbao en torno a la cultura de la no-violencia. Siete días en los que participan activamente asociaciones, colectivos, organizaciones de tiempo libre, clubes de jubilados y pensionistas, empresas relacionadas con la información y el arte, medios de comunicación y la ciudadanía en general.

El programa de actividades abarca conferencias, foros, exposiciones, talleres, proyecciones de películas y actividades lúdicas en las que la participación ciudadana es clave.

Bilbao dispone además de un “Foro Local por la Paz” en el que participan representantes de los distintos partidos políticos, universidades, la Diócesis de Bilbao y asociaciones.

Bilbao dispone de un importante programa público de cooperación internacional al desarrollo y cuenta con una amplia red de ONGs locales que trabajan en las más diversas áreas de la solidaridad en los países más desfavorecidos o empobrecidos. El trabajo de estas ONGs puede verse además en las innumerables iniciativas, muchas de ellas apoyadas por el propio Ayuntamiento, de solidaridad, sensibilización y educación que se realizan a diario por las calles, centros culturales o educativos de toda la ciudad. Miles de bilbainos han cruzado el mundo participando en los más diversos proyectos o iniciativas de solidaridad. Allí donde vayamos, en África, América o Asia, será difícil no encontrar un hijo o hija de Bilbao cooperando o trabajando con ONGs o instituciones locales o internacionales.

El Instituto de Derechos Humanos Pedro Arrupe, en la Universidad de Deusto, y el Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional Hegoa, de la Universidad del País Vasco, ofrecen postgrados, programas de doctorado e investigaciones de primer nivel internacional.

Bilbao ha querido ser fiel a esta trayectoria y a estas señas de identidad, aliándose a la UNESCO en la creación del Premio UNESCO /BILBAO para una Cultura de los Derechos Humanos. Para ello se apoya en una organización local de la sociedad civil: el Centro UNESCO del País Vasco o UNESCO Etxea, entidad con sede en Bilbao y estatus de relaciones oficiales internacionalmente reconocido por la UNESCO. UNESCO Etxea, institución de gran prestigio en Bilbao y en la propia UNESCO, el Ayuntamiento de Bilbao y la UNESCO han creado así una alianza para la promoción internacional de la Cultura de los Derechos Humanos de la que la ciudad se siente ya muy orgullosa.

**UNESCO/BILBAO Saria 2010**

---

**Premio UNESCO/BILBAO 2010**

---

## Asma Jahangir, Giza Eskubideen Kultura Sustatzeko UNESCO/Bilbao Sariaren irabazlea

UNESCOn zuzendari nagusi Irina Bokovak Asma Jahangir pakistandarra izendatu du Giza Eskubideen Kultura Sustatzeko 2010eko UNESCO/Bilbao Sariaren irabazle. Sariaren nazioarteko epaimahaiak Asma Jahangir aukeratu du, Giza Eskubideen kultura unibertsala eraikitzeko aparteko ekarpen ausarta egin duelako. UNESCOn zuzendari nagusiak 2010eko abenduaren 10ean, Giza Eskubideen Egunean, Bilbon (Espainia) egingo den zeremonian emango ditu saria (25.000 dolar), diploma eta brontzeko trofeoa, Toshimi Ishiik egina. Zeremonia hori Iñaki Azkunaren aurrean egingo da, Bilboko alkatearen aurrean.

UNESCO/Bilbao Saria Asma Jahangiri emanez, UNESCOK Giza Eskubideen defentsan egindako lana eskertu nahi dio; batez ere, Pakistango Gorte Goreneko legelari eta abokatu den aldetik, erlijio-gutxiengoan, emakumeen eta haurren eskubideen alde egindako lana. Pakistanen, Asma Jahangir Gorte Goreneko Abokatu Elkargoko lehendakaria da, eta Giza Eskubideen aldeko Batzordeko kide sortzailea; batzorde horretako idazkari nagusi eta lehendakari ere izan da. Halaber, Women's Action Forum forumaren sortzailea ere bada. Asma Jahangiren lanak nazioarteko garrantzia hartu du, Nazio Batuen Erlijio eta Sinesmen Askatasunerako Kontalari Berezia eta Nazio Batuen epaiketaz kanpoko exekuzio sumario edo arbitrarioei buruzko Kontalari Berezia delako. Asma Jahangirentzako saria azaroaren 16ean (Tolerantziaren Nazioarteko Eguna) iragarri, UNESCOK haren konpromisoa eta ekarpen garrantzitsua omendu nahi izan ditu, erlijio-eta kultura-arteko elkarriketaren, tolerantziaren, elkar ulertzearen eta bakea lortzeko lankidetzaren alde. Asma Jahangirek tinko defendatzen du hezkuntzak intolerantziaren eta diskriminazioaren erroetako arrazoiak ezabatzeko bete dezakeen eginkizuna.

Era berean, UNESCOn zuzendari nagusiak ohorezko hiru aipamen ematea erabaki du, gobernuz kanpoko lau erakunderi. Horrela, gizarte zibilak Giza Eskubideen kultura unibertsala eraikitzeko zer-nolako garrantzia daukan onartzen du. Parque por la Paz Villa Grimaldi korporazioa (Txile), Cultura de Paz fundazioa (Espainia), eta "Frantzia Asilo Herria" (France terre d'Asile) eta "Musika Itxaropena Nazioarteko Federazioa" (Fédération internationale Musique Espérance) dira erakunde horiek.

Giza Eskubideen Kultura Sustatzeko UNESCO/BILBAO Saria bi urtetik behin ematen da, eta Giza Eskubideen Hezkuntzarako UNESCO Sariaren (1978-2006) irismena hedatzen du. UNESCO/Bilbao Sariaren xedea da, hezkuntzaren nahiz ikerketaren bitartez Giza Eskubideen aldeko ekarpen nabarmena egiten duten erakundeak eta pertsonak saritzea. Sariak Giza Eskubideen inguruko kontzientziazioa handitzen laguntzen du; bereziki, politikarien eta jende gehienaren artean.

Duela bi urte, Parisen, Giza Eskubideen defendatzaile Stéphane Hessel frantziarra izan zen sariaren lehen irabazlea. Giza Eskubideen Hezkuntzarako UNESCO Sarien irabazleen artean, besteak beste, honako hauek daude: Pretoriako unibertsitatea (Hegoafrika), Vitit Muntarhorn (Thailandia), Giza Eskubideen Mexikoko Akademia (Mexiko), Nurenberg hiria (Alemania), Giza Eskubideen Arabiar Institutua (Tunisia), eta Václav Havel, Txekiar Errepublikako lehendakari ohia

### Informazio gehiago

<http://www.unesco.org/new/en/social-and-human-sciences/events/prizes-and-celebrations/unesco-prizes/unescobilbao-prize/>

### Harremanetarako:

Lucía Iglesias, UNESCOn Informazio Publikoko saila  
Tel. +33 (0) 1 45 68 17 02 / [l.iglesias\(at\)unesco.org](mailto:l.iglesias(at)unesco.org)

## Asma Jahangir, ganadora del Premio UNESCO/BILBAO para la Promoción de una Cultura de los Derechos Humanos

París, 16 de noviembre – La Directora General de la UNESCO, Irina Bokova, ha designado a la pakistaní Asma Jahangir como ganadora de la edición 2010 del Premio UNESCO/BILBAO para la Promoción de una Cultura de los Derechos Humanos. Asma Jahangir ha sido elegida por el jurado internacional del premio por su excepcional y valiente contribución a la construcción de una cultura universal de los Derechos Humanos. La Directora General de la UNESCO otorgará el premio, dotado de 25.000 dólares, un diploma y un trofeo en bronce realizado por Toshimi Ishii, durante la ceremonia que tendrá lugar el 10 de diciembre de 2010, Día de los Derechos Humanos, en Bilbao (España) en presencia de Iñaki Azkuna, Alcalde de la ciudad.

Al conceder el Premio UNESCO/BILBAO a Asma Jahangir, la UNESCO reconoce su contribución a la defensa de los Derechos Humanos y en particular su papel, en tanto que jurista y abogada en la Corte Suprema del Pakistán, a favor de los derechos de las minorías religiosas, de las mujeres y de los niños. En su país, Asma Jahangir es Presidenta del Colegio de Abogados de la Corte Suprema y miembro fundador de la Comisión para los Derechos Humanos, de la que ha sido Secretaria General y Presidenta. También es fundadora del Women's Action Forum. El trabajo de Asma Jahangir ha tenido también una dimensión internacional gracias a su papel como Relatora Especial de las Naciones Unidas sobre la Libertad de Religión y Creencias, así como Relatora Especial de las Naciones Unidas sobre ejecuciones extrajudiciales, sumarias o arbitrarias. Al anunciar la concesión del premio a Asma Jahangir un 16 de noviembre (Día Internacional de la Tolerancia), la UNESCO rinde un homenaje a su compromiso y a su importante contribución a favor del diálogo interreligioso e intercultural, de la tolerancia, de la comprensión y de la cooperación por la paz. Asma Jahangir defiende con vigor el papel que la educación puede jugar para eliminar las causas raíz de la intolerancia y la discriminación.

La Directora General de la UNESCO ha decidido igualmente otorgar tres Menciones de Honor a cuatro organizaciones no gubernamentales, reconociendo así la importancia de la contribución de la sociedad civil en la construcción de una cultura universal de los Derechos del Humanos. Se trata de la Corporación Parque por la Paz Villa Grimaldi (Chile), de la Fundación Cultura de Paz (España), así como “Francia Tierra de Asilo (France terre d’Asile) y la “Federación Internacional

Música Esperanza” (Fédération internationale Musique Espérance).

El Premio UNESCO/BILBAO para la Promoción de una Cultura de los Derechos Humanos se otorga cada dos años. Instaurado en 2008 con el apoyo de la alcaldía de Bilbao, el premio amplía el alcance del Premio UNESCO de Educación para los Derechos Humanos (1978-2006). El Premio UNESCO/BILBAO tiene como objetivo recompensar a las organizaciones o particulares que han contribuido de manera significativa a la causa de los Derechos Humanos ya sea a través de la educación o de la investigación. El premio sirve para aumentar la concienciación en relación a los Derechos Humanos, en particular entre las clases políticas y el gran público.

Hace dos años, en París, el francés defensor de los Derechos Humanos Stéphane Hessel fue el primer ganador de este premio. Entre los ganadores del Premio UNESCO de la Educación para los Derechos Humanos figuran la Universidad de Pretoria (Sudáfrica), el tailandés Vitit Muntarbhorn, la Academia Mexicana de Derechos Humanos (México), la ciudad de Nuremberg (Alemania), el Instituto Árabe de Derechos Humanos (Túnez), y el antiguo Presidente de la República Checa, Vaclav Havel.

### Para más información

<http://unesco.org/new/fr/social-and-human-sciences/events/prizes-and-celebrations/unesco-prizes/unescobilbao-prize/>

### Contacto:

Lucía Iglesias, División de Información Pública de la UNESCO  
Tel. +33 (0) 1 45 68 17 02 / [l.iglesias@unesco.org](mailto:l.iglesias@unesco.org)

## Asma Jahangir

Abokatua eta Pakistango Gorte Goreneko kidea da, bai eta Pakistango Giza Eskubideen Batzordeko kide sortzailea ere. Erakunde horretako idazkari nagusia izan zen, eta ondoren, lehendakaria. Asma Jahangirek giza eskubideak defendatzen eman du bizitza, bai eta zuzenbide konstituzionalaren defentsaren eta errespetuaren alde lanean ere.

Pakistanen nahiz atzerrian egiten du lan, erlijio-gutxiengoaren eta emakumeen jazarpena eta haur-esplotazioa saihesteko.

Asma Jilani Jahangir abokatua da ofizioz, eta giza eskubideen aldeko ekintzaile nabarmena ere bada. 1952an jaio zen, Lahoren (Pakistanen). Lahoren bertan egin zituen unibertsitate-mailako ikasketak, Kinnaird College unibertsitatean, eta Punjabeko Unibertsitatean lortu zuen zuzenbide-lizentzia. Orobat, honoris causa doktore izendatu dute Suitzako Saint Gallen, Kanadako Queen's eta Ameriketako Estatu Batuetako Amherst College unibertsitateetan.

Ikuspegi historikotik, Asma Jahangirrek eragina izan du Pakistango gai sozial eta politikoko nagusietan. 1980an, zuzenbide-lizentzia eskuratu eta pixka bat geroago, emakumezko abokatu eta ekintzaile urri batzuei batu zitzaizkien bera eta bere ahizpa Hina Jilani, eta emakumeek zuzendutako Pakistango lehen abokatu-langela eratu zuten. AGHS Legal Aid taldeak ordezkatu zuen langela hori. Doako lege-laguntzarako herrialdeko lehen zentroa izan zen AGHS Legal Aid (AGHS Lege Laguntza), eta emakumeentzako aterpe bat ere badute Lahoren duen egoitzan, *Dastak* izeneko. 1980an, WAF Emakumeen Ekintza Foroa sortzen ere lagundu zuten Asma Jahangirrek eta haren lagun ekintzaileek.

Asma Jahangirrek genero-berdintasunaren alde egin du. Bere konpromisoaren ondorioz, etxean preso izan zuten, eta zenbait heriotza-mehatxu egin zizkieten berari eta senideei. 1983ko otsailaren 12an, Punjabeko Emakumezko Abokatuen Elkarteak jendaurreko protesta bat antolatu zuen Lahoren Ebidentzia Legearen proiektuaren aurka, eta buruetako bat Asma Jahangir izan zen. Protesta horretan, poliziak Asma Jahangir bera eta WAFeko beste kide batzuk atxilotu zituen. Asma Jahangirren ahaleginei esker, emakumeen kontrako bidegabekeria-kasu asko argitu dituzte, eta jazarritako pertsona askoren bizitza hobetzen lagundu du Asma



Abogada, miembro de la Corte Suprema de Pakistán, es miembro fundador de la Comisión de Derechos Humanos de Pakistán y ha servido como Secretaria General y luego Presidenta de la Organización. Asma Jahangir ha dedicado su vida a la defensa de los derechos humanos y al respeto y defensa del derecho constitucional.

Trabaja tanto en Pakistán como en el extranjero para prevenir la persecución de minorías religiosas, mujeres y la explotación de niños y niñas.

Abogada de profesión y destacada activista de derechos humanos, Asma Jilani Jahangir nació en 1952 en Lahore, Pakistán. Realizó sus estudios universitarios en el Kinnaird Collage en Lahore y su licenciatura en derecho en la Universidad de Punjab. También es Doctora Honoris Causa por las Universidades de Saint Gallen en Suiza, Queen's University en Canadá y el Amherst College en los Estados Unidos.

Históricamente, Asma Jahangir ha influenciado los principales temas sociales y políticos en Pakistán. En 1980, poco después de obtener su licenciatura en derecho, Asma Jahangir y su hermana, Hina Jilani, se sumaron a unas pocas activistas y abogadas y formaron el primer bufete de abogados dirigido por mujeres en Pakistán, el cual fue sucedido por AGHS Ayuda Legal, el primer centro de ayuda legal gratuito del país. La sede de AGHS Ayuda Legal en Lahore cuenta también con un refugio para mujeres, llamado "Dastak". En 1980, Asma Jahangir y sus compañeros activistas ayudaron también a la creación del Foro Mujeres en Acción (WAF).

Asma Jahangir ha sido una defensora de la igualdad de género. Su compromiso llevó a su arresto domiciliario y tanto ella como su familia recibieron varias amenazas de muerte.

El 12 de febrero de 1983, la Asociación de Mujeres Abogadas de Punjab en Lahore organizó una protesta pública (una de sus líderes era Asma Jahangir) contra el Proyecto de Ley de Evidencia. Durante la misma, Asma Jahangir y otros miembros de WAF fueron detenidos por la policía. Gracias a los esfuerzos de Asma Jahangir, muchos casos de injusticia hacia las mujeres fueron esclarecidos y ayudó a aliviar la vida de muchas personas perseguidas, entre ellas: Safia Bibi, Mukhataran Bibi, Jehan Mina y Shahida Parveen. Uno de los casos más controversiales fue su defensa de Safia Bibi, una niña ciega de 13 años quien, violada por sus empleados, quedó embarazada y fue condenada a prisión por adulterio

Jahangirrek, hala nola Safia Bibi, Mukhataran Bibi, Jehan Mina eta Shahida Parveen-ena. Asma Jahangirren kasurik polemikoenetako bat Safia Bibiren defentsa izan da: 13 urteko neskato itsu bat zen Safia Bibi, eta haren enplegatuek bortxatu eta haurdun utzi zuten; horren ondorioz, adulterioa (*zina*) egotzita, kartzelara kondenatu zuten. 1983an, WAFeko 25 eta 50 kide artean kalera atera ziren lehen aldiz Asma Jahangirren kasu horren aurka protestatzera, eta, lagun ekintzaileekin batera, Safia Bibiri jarritako zigorra (heriotza) balio gabetzea lortu zuen Asma Jahangirrek.

1995ean, heriotza-mehatxu ugari egin zizkieten Asma Jahangirri, Salamat Maiz defendatzeagatik: 14 urteko mutiko kristau bat zen Salamat Maiz, eta heriotza-zigorra jarri zioten, ustez islamaren kontrako biraoak idatzi zituelako meskita baten horman. 1999an, heriotza-mehatxuak egin zizkieten berriz Asma Jahangirri eta haren ahizpa Hina Jilani abokatu eta ekintzaileari, Samia Sawar ordezkatzeagatik: indarkeria erabiltzen zuela-eta, senarrarengandik dibortziatu nahi zuen 32 urteko emakume bat zen Samia Sawar, eta familiarengana jo zuen dibortzioa lortzeko laguntza eske; baina familiak laguntzeari uko egin zion eta, Samia Sawarrek dibortziatzen ahalegintzen jarraitzen zuela ikusirik, hil egin zuen, egun-argitan, Asma Jahangirren eta Hina Jilaniren bulegoetan bertan; itxuraz, familiak uste zuen familia bera desohorutzen zuela Samia egiten ari zenak.

Genero-berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea sustatzeko, gizarte zibilarekiko elkarrekintza proposatu du Asma Jahangirrek. Hain zuzen ere, truke sozialak proposatu ditu, emakumeen estatusa hobetzeko eta,aldi berean, finantza-egonkortasuna lortzeko, pakistandar pobreentzat negozio- eta lan-aukeren bitartez.

Pakistango Auzitegi Goreneko kide eta Lahoreko Quaid-e-Azam Law Collage unibertsitateko zuzenbide-irakasle izateaz gain, Pakistango Giza Eskubideen Batzordeko Kontseiluko lehendakari eta ohorezko kide ere izan zen Asma Jahangir.

Asma Jahangir buru izanik, Pakistango Giza Eskubideen Batzordeak aurrera egin du 1987tik aurrera eta, gaur egun, herrialde osoan dihardu giza eskubideen aldeko erakunde horrek, hainbat esparrutan. Pakistan barnean, Pakistango Giza Eskubideen Batzordea nagusi da giza eskubideen eta Pakistanen garapen demokratikoaren aldeko borrokan oso ikuspegi landu eta independentea ematen; eta nazioartean gero eta gehiago aitortzen dute eginkizun hori. Gobernu kanpoko eta irabazi-asmorik gabeko erakunde independente eta apolitikoa da Pakistango Giza Eskubideen Batzordea, boluntarioek osatutakoa, eta Sozietateen Erregistroari buruzko Legearekin bat erregistratuta dago (1860ko XXI); Lahoren du idazkaritza. Besteak beste, hau du eginkizuntzat:

(zina). Entre 25 y 50 mujeres miembros de WAF protestaron por primera vez en las calles en 1983 contra este caso defendido por Asma Jahangir quien, con sus compañeros y compañeras activistas, se las ingenió para dar vuelta a su sentencia de muerte.

En 1995, Asma Jahangir recibió numerosas amenazas de muerte por su defensa de Salamat Maíz, un niño cristiano de 14 años sentenciado a muerte por haber supuestamente escrito palabras blasfemas en contra del Islam en el muro de una mezquita. En 1999, Asma y su hermana, Hina Jilani, compañera abogada y activista, fueron nuevamente objeto de amenazas de muerte luego de haber representado a Samia Sawar, una mujer de 32 años que intentaba divorciarse de su marido violento. Samia recurrió en ayuda a su familia pero rechazaron ayudarle a obtener el divorcio. Cuando Samia continuó buscando el divorcio, su familia la asesinó a plena luz del día en las oficinas de Asma e Hina. Aparentemente, su familia creía que las acciones de Samia eran deshonrosas para la familia.

Para promover la igualdad de género y el empoderamiento de la mujer, Asma Jahangir ha propuesto también interacciones con la sociedad civil a través de intercambios sociales tendientes a mejorar el estatus de la mujer y al mismo tiempo proveer estabilidad financiera a través de oportunidades de negocios y de trabajo a pakistaníes pobres.

